

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO** **hitza**

Asteazkena, 2013ko otsailaren 27a. IX. urtea. 2.552. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Zubero, Berriotxo, Iraola, Urkola eta Delgado izan ziren Emakumeen Nazioarteko Eguneko egitaraua aurkeztu zutenak. ITZEA URKIZUA

Martxoaren 8a 'Gure gorputza, gure erabakia' lelopean dator

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira,
Tolosako Udalak eta hainbat eragilek, hiru
astez luzatuko den egitaraua prestatu dute

Gaur abiaraziko dituzte ekitaldiak ‘Emakumea eta kartzela’ mahai inguruarekin; 19:00etan izango da Aranburu jauregian **02**

Cartonajes Limousin txirrindulari taldea aurkeztu dute

Tolosako Oriako Txirrindulari eskolak emakumezkoen taldea izango du aurtengo denboraldian **05**

Ekintzaileen topagune bilakatu da Tolosako musika eskola



Tolosaldea Garatzenek
'Garai nahasietan ekin zure
egitasmoari' tailerra
antolatu du; Maialen Oregi
Manahamana-ko kideak
zuzentzen du 🍌

Nerea Sainz
Erizaina

«Haurdun
geratzeko orduan
zein den arazorik
nagusiena
azalduko dut»

Elkarrizketa ▶ 3

'Ostegun beltzak' ekimenaren barruan elkarretaratzea

Eskola publikoaren alde eta murrizketen aurka mobilizazioa egingo dute Leitzako Erleta eskolako irakasle, ikasle, guraso eta, oro har, herritarrek **07**

Enrike Rubiños Musikaria

**«Ibarrako gaztetxea
betetzea espero dugu
larunbatean, eta
batez ere, girotzea»**

Gaztetxearen 20. urteurrenaren barruko ekitaldietan, Vendettaren kontzertua dago **06**



**TOLOSAKO
IKASTETXEA**



Euzko Lehen Unibertsitatea



Euzko Lehen Unibertsitatea



Euzko Lehen Unibertsitatea

HEZIKETA ZIKLOAK

Erdi maila	Goi maila
• Erributasun Ingelesakoa • Matematika eta Pentsamendua	• Osasun Dokumentazioa • Diagrama Inklusio • Errealitategia
	• Giza eta Ingelesakoa • Hain Herriakoa

HITZALDIA: 2015/02/28 18:30tan
LAGUNTZA BIDEZKO UGALKETA



ATE IREKIAK MARTXOAREN 7AN 19:30tan

Emakumeen kultur sormena izango da martxoaren 8rako aldarrikapen

Gaur abiaraziko dute egitaraua, 19:00etan, 'Emakumea eta kartzela' mahai inguruarekin

Itzea Urkizu

Hiru astez luzatuko den kultur egitarau oparoak bidea irekiko die, aurtten, martxoaren 8an ospatuko den Emakumeen Nazioarteko Eguneko aldarrikapenei. *Gure gorputza, gure erabakia* lelopean, erakusketak, hitzaldiak, mahai inguruak, bertso nahiz musika saioak eta festa giroa izango dira, eta jarduera guztietan emakumeak izango dira eragile eta sortzaile.

Miren Urkola Berdintasun zinetziarekin eta Agurtza Zubero Berdintasun teknikariarekin batera, egitasmoan parte hartu duten eragile batzuetako ordezkariak izan dira aurkezpenean; Tolosako Bilgune Feministako Nekane Berriotxoa eta Onintza Iraola batetik, eta Emakume artisten taldeko Naiara Delgado, bestetik.

Tolosako Udalak argi azaldu ditu, Miren Urkolaren eskutik, «emakumeen ahotsa entzunarazi, eta euren lana ikusaraziko duen» egitarauaren helburuak: «Duela ia 100 urte aldarrikatzen hasi ziren erreibindikazio asko indarrean daude oraindik, eta lanean jarraitu behar da sistema hau errotik aldatzeko; borroka feministaren aldarrikapenak gogora ekarri nahi ditugu, beraz».

Era berean, gainera, «emakumeek beren bizipenak jendartearen ezagutaraztea» ere udalaren helburuetako bat izan da, egitaraua antolatzerakoan: «Hain maskulinoa den jendartearen, emakumeen ahotsak eta lanak ez du gizone-nak adina oihartzunik».

Oihartzun horren bila, kulturaren hainbat ardarretako emakumeak izango dira eragile. Tolosako Bilgune Feminista eta Tolosako Herrira izango dira,



Agurtza Zubero, Nekane Berriotxoa, Onintza Iraola, Miren Urkola eta Naiara Delgado agerraldian. ITZEA URKIZU

eragileetako, batzuk; emakume artisten taldetik, berri, *Aurrez aurre* erakusketan, Amaia Sarasola, Ane Etxebeste, Arantza Gabirondo, Arantza Munita, Eider Olazar, Idoia Elozegi, Idoia Santxez, Leire Alberdi, Miren Atxaga, Miren Gonzalez, Nagore Etxedona, Naiara Delgado, Nekane Berriotxoa, Nerea Linazasoro, Nerea Ugarte, Nisa Goiburua, Oihana Ugarte, Txitxi Orbegozo eta Tytti Thusberg izango dira sormen lanen egileak.

Espetxea emakumeen begietan
Emakumea eta kartzela mahai inguruak kartzela barrutik eta kanpotik aztertuko du, eta hausnarketak izango du helburu.

Preso izandako emakumeen ahotsaz gain, senideen kolektibari ere pisu nabarmena eman nahi izan diote: «Gizartearen bezala, eremu honetan ere emakumeek hartzen dute barrukoa zaintzeko ardura nagusia: babes emozionala, afektiboa, asistentziala».

↓ Emakumeen Nazioarteko Eguneko egitaraua

OTSAILAK 27, ASTEAZKENA

■ **19:00.** *Emakumea eta kartzela* mahai ingurua, Aranburu jauregian. Hizlariak: Eider Ijurko, Begoña Uzkudun, Mertxe Galdos, Gotzone Ijurko, Nagore Esnaola eta Esti Amenabarro.

MARTXOAK 4, ASTELEHENA

■ **20:30.** *Mariposas en el Hierro* dokumentalaren proiektzioa Leidorren. Bertha Gaztelumendi zuzendaria bertan izango da.

MARTXOAK 5, ASTEARTEA

■ **19:00.** *Emakumea, osasuna eta murrizketak* hitzaldia, kultur etxean. Mati Iturralde medikua izango da hizlaria.

MARTXOAK 8, OSTIRALA

■ **19:00.** Kalejira morea irtengo

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKARIAK

Etxeko lanak. Etxeko lanetarako edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldun batek bere burua eskaintzen du. Autoa ere badauka, gainera, lanera joan ahal izateko. Emakumea kontratatzeko interesa duen edonork, dei egin dezala telefono zenbakietako batera: 943 69 68 82 / 606 52 19 92.

da Emakumeon plazatik. Ondoren, afaria izango da Oargin.

■ **20:30.** *Hau ez da kasualitatea* bertso saio musikatua, Leidorren. Ainhoa Agirreazaldegi, Alaia Martin, Miren Amuriza eta Uxue Alberdi.

MARTXOAK 13, ASTEAZKENA

■ **19:00.** *Ni, Vera* liburuaren aurkezpena, eta jarraian *Emakumeen eta eromena, garrasi isilak* hitzaldia. Itxaso Martin izango da hizlaria.

MARTXOAK 15, OSTIRALA

■ **19:00.** Emakume gazteen kontzertua izango da. Garazi Esnaola eta Garazi Egiguren; Marta Olea; Eider Garcia eta Mor-More.

MARTXOAK 19, ASTEARTEA

■ **19:00.** Hitzaldia, Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegi eskutik: *Bertsolaritza: begirada feminista bat*.

MARTXOAK 21, OSTEGUNA

■ **19:00.** Hitzaldia: *Krisia emakumeen ikuspegitik*. Nekane Jurado izango da hizlaria.
■ **Otsailaren 27tik apirilaren 6ra bitarte.** *Aurrez aurre* erakusketa ikusgai izango da Aranburu jauregian. Tolosako emakume artisten sorkuntza lanek osatuko dute erakusketa.

Ekozinemaldiak Ekuador eta Peruko errealtatea islatuko du gaur

Bihar 'Bazen behin uharte bat' dokumentala eskainiko dute, euskarazko azpittuluekin

I. Urkizu

Ekologistak Martxan-ek, herriz herriko eragileen laguntzaz, zapigarrenez antolatu du aurtten, Ekozinemaldia; *Del viento al azul* eta *Los Naua, 20 años* film katalanen bitartez, Ekuadorko eta Peruko egoerak ezagutu ahal izango dira, gaur, 20:00etatik aurrera, Leidorren.

Zor ekologikoa hizpide duten mundu osoko film aukeraketa batekin osatzen dute, urtero, Ekozinemaldia. Tolosan bezalaxe, Euskal Herriko beste hamahiru herritan ere ospatuko dute egitasmoa, eta guztira, 10 film proiektatuko dituzte; 8 film luzeak izango dira, eta 2 film laburrak.

Zinemarako lan hauekin, Brasil, Ekuador, Amerikar Estatu Batuak, Peru, Bolivia, India, Indonesia, Polinesia, Somalia, Seychelleak, Zeelanda Berria, Frantzia eta Euskal Herriko ekoizpenak plazaratuko dituzte, eta guztiek, «zenbait jarduera ekonomikor eta hauen ondorioek herritarren bizimoduari eta ekonomiari» nola eragiten dioten islatuko dute, era batera nahiz bestera.

Horrela beraz, ezinbestean krisiaz ariko dira filmetako zenbait: «Langabezia, murrizketak nahiz pribatizazioa ez ezik, gure diskurtsoetan oraindik eragiten ez duten beste arazo batzuk ere aipatu nahi ditugu. Izan ere, krisia ez da hemen jasaten dugun zerbaitei soilik; sistema osoari dagokio».

Hiru film Tolosan

Herrialde Katalanetan ekoiztutako bi film ikusgai izango dira, gaur, 20:00etan, Leidorren. *Del viento al azul* lanak, Ekuadorko egunerokoa izango du hizpide. *Los Naua, 20 años* pelikula, berri, petrolio mugak Perun, Amazonasen arroan, izan duen aurreapena islatuko du. Nauak Peruko gas proiekturik handiena ezarri zuten lekuan bizi dira, eta 20 urtetan jasandako narriadura ikusi ahal izango da.

Bihar, berri, *Bazen behin uharte bat* ikusi ahal izango da, euskarazko azpittuluekin, 19:45ean, Leidorren. Hainbat sari jaso ditu, Zeelanda Berriko lanak, eta klima aldatetaren gaia jorratuko du: lurrari eragiteaz gain, pertsonen bizitzetara eta nortasunei nola eragingo dien islatuko du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Osasun eta gizarte arloko ikasketak, aukeran

Tolosako Inmakulada ikastetxean martxoaren 7rako ate irekien jardunaldia antolatu dute, 15:30etik aurrera

Osasun arloko ikastetxe handienetakoa da Gipuzkoan, Ana Monje zuzendariak dioenez

Eneritz Maiz Tolosa

Tolosako Inmakulada ikastetxeak urteak daramatza gazteak hezten, eta urteetan aldaketa asko jasau ditu. Mojen ikastetxe izateari utzi, eta duela zazpi urte langileen kooperatiba egin zuten eta Ikastolen elkartearen sartu ziren. Gizarte eta Osasun arloko lanbide heziketako ikastetxea da. Erdi mailako eta goi mailako ikasketak eskaintzen dituzte, eta eskualdeko ikasleek gain Gipuzkoatik eta kanpotik etorritako ikasleak hartzen dituzte.

Martxoaren 7an, ostegunean, ate irekien jardunaldia egingo dute interesa duen edonork beraien eskaintza zertan datzan jakin dezan. 15:30etik aurrera zabalduko dituzte ikastetxeak ateak. Beraien zikloak eta ikastetxeak zer lan mota egiten

duten azalduko dute. Informazio guztia emango zaie bertaratzen diren guztiei, eta matrikulak maiatz amaiera aldera egin ahal dira.

Gipuzkoa mailan osasun arloko ikastetxerik handienetakoa dela azaldu du Ana Monje zuzendariak. Arlo batzuetan bakarrak dira, eta Erizaintzaren kasuan, bakarrak ez diren arren, euskaraz ematen duten bakarrak direla azaldu du. Gizarte integrazioa ere euskara hutsez eskaintzen dute. 350 ikasle dituzte ikasketa arauetuan, eta batzuetan beste, hogeita hamabost irakasle daude. Eskualdeko ikasleek kopurua %15era ez da iristen.

Erdi mailako ikasketen artean, Erizaintza laguntzailea edota Farmazia eta parafarmazia ikasketak egiteko aukera dago. Aldiz, eskaintza zabalagoa du goi maila-



Inmakulada ikastetxea Tolosako Kondeko Aldapa kalean dago. A. IMAZ

ko ikasketetan. Osasun dokumentazioa, Diagnosi irudia, Erradioterapia, Gizarte integrazioa eta Haur hezkuntza ikasteko aukera dago. Erdi mailako ikasketak hasi nahi dituenak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gainditua izan beharko du. Eta goi mailako ikasketak egin ahal izateko Batxilergoa gainditua izan beharko dute, edo erdi mailatik goi mailarako sarrera froga gainditu beharko dute. Beraien ikasleak sarrera froga egin ahal izateko ere prestatzen dituzte.

Euskara eta kalitatea, ardatz
Beraien hezkuntza sisteman metodologia berriak erabiltzen dituzte, eta lan handia ari dira egiten. Mondragon Unibertsitatea-

rekin hezkuntza kooperatibo batean sartuta daude, eta elkarrekin lantzen ari dira. Beste hainbat esperientzia pilotutan sartuta daude.

Euskarari eta eleaniztasunari garrantzia ematen diote Inmakulada ikastetxean. Beraien zikloak euskaraz ematen dituzte, baina egia da materialarekin zailtasunak dituztela. Poliki-poliki ari dira materiala sortu eta prestatzen. Ia ez dagoela materialik aitoritu du Monje zuzendariak. Aldiz, esperientzia berri gisa Haur hezkuntzako zikloa hiru hizkuntzetan ematen ari dira, eta didaktikako modulua ingelesez ematen hasi dira. Kalitateak ere pisu handia hartzen du ikastetxean,

↓ Egitaraua

■ **Bihar, hilak 28.** Nerea Sainz Laguntza bidezko ugalketa hitzaldia eskainiko du ikastetxean bertan, 18:30ean.

■ **Martxoak 7, osteguna.** Ate irekien jardunaldia egingo dute 15:30etik aurrera.

eta kudeaketa mailan bikaintasunari garrantzi handia ematen diote. Kudeaketa plan estrategiko baten barruan lan egiten dute, hiru hilabeteko errebisatzen dute, eta hobekuntzak ezartzen dizkio sistemari. ISO 9000 kalitate ziurtagiria lortua dute. Honez gain, beste ziurtagiriek ere ari dira.

Nerea Sainz • Erizaina

«Ama izatea berandu erabakitzen badugu, zailtasunak egon daitezke»

E. Maiz

Osasun arloko ikastetxea izanik, Inmakulada ikastetxeak, urterotero, herritarrei begirako ekitaldiak antolatzen ditu. Kasu honetan, lehena, *Laguntza bidezko ugalketa* hitzaldia izango da. Gaur, ikastetxean bertan izango da, eta 18:30etik aurrera, azalpenak ematera eta edozein zalantza argitu asmoz etorriko da Nerea Sainz (Zarautz, 1977), Bilboko Quiron ospitaleko erizaina.

‘Laguntza bidezko ugalketa’ hitzaldia eman behar duzu Tolosan. Zer azalduko duzu?

Batez ere, gaur egun, emakumeak haurdun geratzeko orduan zein den arazorik nagusia azal-

duko dut. Emakumeak haurdun geratzeko erabakia berandu hartzen du, hau da, gero eta adinean aurrerago eta helduago izanda geratu nahi izaten du haurdun. Hori da lehen zailtasuna.

Hortik abiatuko duzu hitzaldia?

Bai, lehen zergatia hori dela azaltzen dut, eta mezu garbia ama izatea berandu erabakitzen badugu arazoak izan daitezkeela da. Jarraian ugalketa lagunduan dauden aukera ezberdinak azalduko ditut, eta bakoitza zein kasutan erabiltzen den.

Zailtasunak dituenak zein aukera ditu?

Bata intseminazioa litzateke. Batetik, arrazoi garbirik ez dagoenean erabiltzen da, eta, bestetik, bi-

kote homoxesualetan. Horrez gain, laborategian egiten den *in vitro* ernalketa legoke. Kasu honetan, emakumearen obulua hartu eta gizonaren espermatozoidarekin elkartzen da. Eta bi kasu egongo lirateke: beraien kasa ugaltzen uztea edota obuluari operazio txiki bat egitea izango litzateke bere barruan espermatozoida sartuz. Hauetz gain, beste kasu bat haurrak gaixotasunen bat jaso dezakenekoa izango da.

Aurrerapenak ere nabariak izango dira.

Aurrerapenak egunero sortzen dira. Beti daude gauza berriak, eta lanean jarri behar da. Esaterako, enbrioiaren egin diren aurrerapenez ere ariko naiz, eta

hauek izozteko moduaz. Ziklo batean haurdun ez bada geratzen, aukera gehiago eskaintzen du hila bete batzuk beranduago berriz ere enbrioiarekin saiatzeko. Bestalde, obuluak beiratzeko legoke. Gu asko ari gara egiten, hau da, emakumeak argi du ama izan nahi duela baina ez dela unea iritsi, beraz, gorde egiten ditugu garaia iritsi bitartean. Minbizia dutenen kasua ere hau litzateke.

Osasun publikoak hauek guztiak eskaintzen ditu?

Gaixotasunen bat transmititzeko aukera dutenen proba pribatuan bakarrik eskaintzen dute, hau da, publikoak ordaintzen du baina pribatuan egin behar da tratamendua. Beste guztiak publikoan

egin daitezke. Hala ere, geroz eta murrizketa gehiago daude.

Emakumeak alpatzen dira sarri, baina haurdun ez geratzearen arazoa gizonarena ere izan daiteke.

Bai, gerta daiteke, eta egia da gaur egun espermaren kalitatea asko jaitsi dela. Hala ere, hau errazago konpondu daiteke obuluarena baino. Esperma laborategian asko hobetu daitezke, baina obuluak ez. Obuluak emakumearen adina du, eta espermatozoidak ez gizonarena adina. Espermatozoidak hiru hilean behin berritzen dira.

Herritarrek galderak egin eta zalantzak argitzeko aukera izango dute. Zein izaten da galderarik ohikoena?

Jende askok pentsatzen du tratamendu bat hartu eta ehuneko ehuneko ziurtatua dagoela haurdunaldia, eta hori ez da horrela izaten. Zailtasunak izaten dira, eta berriro ere emakumearen adina izaten da gakoa. Eta tratamendu bat egitera bideratuko gaituen ere kasu gehienetan adina izango da.



Alegiako Txintxarri abesbatzako kideak Trintxerpen, larunbatean. HITZA

Txintxarrikoen kontzertu beroa Trintxerpen

Alegiako abesbatzaren emanaldia txaloz hartu zuten Karmengo Amara gerturatu ziren entzuleek

A. Imaz Alegia

Alegiako Txintxarri abesbatzak kontzertua eskaini zuen Trintxerpen, larunbatean. «Eguraldiak ez zuen askorik lagundu, kanpoan elurra ari zuen bitartean eskaini baikenituen dozena bat abesti Karmengo Amaren parrokian», azaldu dute alegiarrek. Etxeko epelletik atera, eta Txintxarrikoen doinuak entzutera joan ziren, ordea, asko izan ziren. Garbiñe Orbegozoren zuzenda-

ritzapean eta Mariaje Rekondo pianoan lagun zutela aritu ziren alegiarrek, Trintxerpetarra abesbatzak antolatutako ekitaldian. Emanaldi anitza eskaini zuten Txintxarrikoek, estilo desberdineko kantuekin. Baina zalantzarik gabe, Antonio Machado poeta sevillarraren poemak izan zuen arrakasta handiena. Joan Manuel Serrat abeslari kataluniarrek doinua ezarri zion *Caminante, no hay camino* abestia izan zen txalotuena. Horrez gain, *O voso galo comadre* Galiziako abesti dibertigarria eta Kirby Shaw estatubatuarren *Jubilate Deo* obrak ere gustuko izan zituzten entzuleek.

Kontzertuaren ondoren, Trintxerpeko Ur Gain elkartearen afaldu zuten Alegiako abeslariak.

→ Laburrak

Afrikar dantza ikastaroan izena emateko aukera

ADUNA » Asvinenaren Afrikar dantza ikastaroa antolatu dute, Marie Toure irakaslearekin. Hiru hilabeteko iraupena izango du, eta astearteetan izango dira klaseak. Bazkideek 120 euro ordaindu beharko dituzte, eta ez direnek 135. Izena emateko 691 62 66 06ra deitu behar da.

Espainiako banderaren inguruko batzarra, gaur

AMEZKETAKA » Espainiako banderaren inposaketaren inguruko laugarren batzarra egingo dute gaur, 19:00etan, Amezketa kultur etxean. Bertan, aurreko batzarretan erabaki diren 3 ekimenen inguruko antolaketa egingo da: Ikurrinen banaketa; herria ikurrinekin atontzea eta apirilaren 7an burutuko den ikurrinaren ospakizuna. Nahiz eta aurrez batzarrera ez azaldu, herriar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera.



A. IMAZ

Maialen Oregi » Manahamana-ko kidea

Krisi garaian ekintzaile sena garatzeko tailerra antolatu du Tolosaldea Garatzenek Tolosako musika eskolan. Maialen Oregi 20 lagunekin elkartu da atzo eta gaur, ideia berriak sustatzeko asmoz.

«Eskualdean enpresa berriak sortzeko ideiak lantzen ari gara tailerrean»

Asier Imaz Tolosa

Tolosaldea Garatzenek ekintzaileentzako tailerra antolatu du. Atzo eta gaur, Maialen Oregi (Sorluze, 1985) Tolosako musika eskolan egongo da, *Garai nahasietan ekin zure egitasmoari* ekimenarekin. Oregi, Manahamana aholkularitza etxeko kidea eta tailerraren arduraduna da.

Zer landuko da ikastaro honetan?

Bizipenen inguruko ikastaroa izango da. Gaur egun zein tendentzia ematen diren ikusiko dugu, eta ondoren, Tolosaldean dagoe-na aztertuko dugu. Modu horretan, zein aukera dauden ikusiko dugu. Askotan kanpora joatean aukera gehiago daudela pentsatzen dugu, adibidez Alemanian, baina sarri gauzak egiteko lekurik egokiena ezagutzen dugun hori izaten da, hau da, eskualdea bera. Tendentzia globalak hemengoekin alderatuko ditugu. **Ideiak sortzea al da tailerraren helburua?** Eskualdean enpresa berriak sortzeko ideiak lantzen ariko gara. **Zein da parte hartzaileen perfla?** Hasiera batean muga hamasei lagunetan jarri genuen, baina eskaria handiagoa izan denez, hogeihira igo dugu kopuru hori. Ikastaroan parte hartzen duten gehienak langabetuak izaten dira; batzuk

buruan ideia argi batekin etortzen dira, eta besteak ez.

Aurrez ideia bat duenari nola laguntzen diozue?

Konpetentzia batzuk ikusten dira, eta ondoren, konpetentzia horretan bakoitza nola dagoen ikusten da.

Zer esan nahi duzu horrekin?

Lan pertsonalizatua egiten dela. Bakoitzak buruan zer duen aztertzen da, eta hori gauzatzeko zer falta zaion.

Tailerretan lan indibiduala egiten duzue, beraz.

Bai, horrela da, azkenean helburua indibiduala baita. Norberak duen ideiarekin inguruan balorazio bat egin behar du bakoitzak. Hala eta guztiz ere, tailerreko metodologia taldekakoa da; denon artean landuko ditugu gauzak.

Bertan aztertzen dena gero praktikan jartzen al da?

Hainbat eskualdetan aritu gara tailer hau egiten, eta helburuetako bat, gauzak egiteko aukerak daudela ikustea eta sinestea da. Askotan, ideia bat buruan izan arren, ez gara ausartzen ezer egitera. Muga hori gainditzeko laguntzen du tailer honek, eta hori lortzea oso garrantzitsua da. Ideia hori gauzatzeko pare bat lagun elkartuko balira ondoren, primerakoa izango litzateke.

Batzuk ideia batekin joaten dira

ikastarora, eta besteak ideiarik gabe. Azken hauekin zein lanketa egiten duzue?

Hasiera batean antzekoa da: zer dagoen ikusten da, eta norberari zer gustatzen zaion aztertzen da. Hortik negozio ideia desberdinak garatzen dira, lurraldeak ematen dituen aukerak kontuan hartuta. Hurrengo urratsa, ideia hori lantzen hastea izango litzateke.

Hor beste baldintza batzuk sartuko lirateke: Kapitala, egoitza...

Horretarako Tolosaldea Garatzen egongo litzateke, tailer honekin ezin baita dena egin. Gogotsu ekiten dionak garapenari, ondoren seriooki aztertu beharko ditu baldintza guztiak, gauzak ondo baloratu ahal izateko.

Etorkizuneko enpresarioez ari gara beraz hizketan.

Ez gara ari betiko enpresa horietaz hitz egiten. Gaur eguneko tendentzietan argi ikusten da hori; beste enpresa mota batzuk dira.

Adibidez?

Esterotipo asko dago gaur egun, eta beti inguruko enpresetan jartzen gara. Kasu honetan, ordea, nire afizioak negozio bilakatzeari ari gara hizketan. Agian ez gara ari 20 langile dituen enpresa batez, norberaren proiektu txikiak baizik: beste batzuekin puntu komunak bilatu, eta sare bat sortuz elkarlanean aritzeaz.

Mauka Berria

GAURKO ESKAINTZA

Bazkari goxoa prezio bikainean Zarauzko erdigunean

KIRKILIA ENEA

Plaza. Marmora, 12 beheko
Zarauzko 20600 (GAP) 2000A
Tel. 945 131 982
www.kirkilia.com

25€

www.mauka.eu

berria



Pasa den igandean aurkeztu zituzten Cartonajes Limousineko txirrindulariak. JONE AMONARRIZ

Emakumezkoen taldea izango du aurten, Cartonajes Limousinek

Taldeko argazki ofiziala ateratzearekin batera aurkeztu du denboraldia Tolosako Oriako Txirrindulari Eskolak

Julen Telleria Tolosa

Hasi berri den sasoi honetan, kadete eta jubenil mailako bost neskek, emakumezkoen taldea osa-

tuko dute lehenengoz Cartonajes Limousinen. Orain arte ere, neska asko aritu izan da taldean, baina mutilekin batera lehiatu izan dira. Aurten, ordea, emakumezkoen lasterketetan parte hartzeko aukera izango dute talde gisa, estreinekoz.

Hala ere, neskena ez da talde bakarra izango. Hauek gain, beste berrogeita bat txirrindulari arituko dira Cartonajes Limousinen mailotarekin, hiru kategoriatan

banatuta. Guzti horien aurkezpena, joan den igande goizean egin zuten, Cartonajes Limousin enpresak Amarotzen duen egoitzan; izan ere, bera da aurtengo denboraldian Oriako Txirrindulari Eskolaren babesle nagusia.

Txirrindulari gazteenak, alebin eta infantil mailakoak izango dira, eta eskolarteko txapelketetan lehiatuko dira. Kategoria bat gorago dauden kadete mailakoek, larunbatean bertan eman zio-

ten hasiera denboraldiari. Ibaetako lasterketarekin. Bertan, laugarren, zazpigarren eta bederatzigarren postuak lortu zituzten, besteak beste, tolosarrek, eta taldekako saria ere eskuratu zuten.

Taldeko nagusienak, berriz, jubenil mailako txirrindulariak dira. Hauek ere, kadete bezala, pasa den asteburuan hasi zuten denboraldia, Pistako Euskadiko Txapelketarekin batera. Bertan, Oriakoko hiru ordezkari izan zi-

ren, eta horren ondorioz, ezin izan zuten aurkezpen ekitaldian egon.

Zuzendaritza berria

Aurtengorako ere osatu dute zuzendaritza talde berria. Gehienak txirrindulari ohiak badira ere, tartean badaude taldeko guraso diren batzuk ere. Eskolarteko mailan, esaterako, hiru guraso arduratuko dira taldea zuzentzeaz. Gainerako taldeak, berriz, bina zuzendariren agindupean ariko dira.

Horien artean, badaude azpimarratu beharreko izen batzuk. Munduko txapeldun izandako Abraham Olano, adibidez, Cartonajes Limousinen zuzendaritzako kide izango da aurten. Era berean, bitan Espainiako txapeldun izandako Ainhoa Artolazabal ere, nesken taldea zuzentzen ariko da.

Beritasun modura, prestatzaile lanetarako hartu duten Aitor Andres ibartarra legoke. Usabal

46 neska-mutilek osatuko dute aurten Cartonajes Limousinen tropela

kiroldegian ireki duten Kirol Teknifikazio Zentroarekin hitzarmen bat sinatu du Oriako Txirrindulari Eskolak, eta taldeko txirrindulariak fisikoki prestatzeaz arduratuko da Andres. Gainera, jubenil mailako mutilen zuzendarietako bat ere bera izango da.

Taldearen inguruko informazio gehiago eskuratu edota klubean izena eman nahiko lukeen edonork, eskura dauka Oriako Txirrindulari Eskolaren web orrialdea: www.oriakotxe.com.

• tolosa@hitza.info

Tolosaldeko atleta gazteak bikain, Euskadiko Txapelketetan

Donostian, Bilbon eta Gasteizen jokatu diren txapelketetan domina ugari lortu dituzte Tolosaldeko ordezkariak

J. Telleria Tolosa

Asteburu oparoa izan da atletismoari dagokionean. Euskadiko Txapelketak jokatu dira modalitate desberdinetan, eta tolosarrek argi erakutsi dute euren nagusitasuna.

Donostian, adin txikikoen pista estaliko txapelketa jokatu zen, eta junior mailan, Aitor Arraizak eta Andrea Maderak urrezko dominak lortu zituzten, pisuan eta 60 metroko lasterketan, hurrenez hurren. Patxi Elosegik, berriz, bigarren izan zen luzera jauzian,

eta hirugarren 60 metroetan. Amaitzeko, Aitor Gisasolak brontzea eskuratu zuen 800 metroetan.

Jubeniletan, urrea lortu zuten Imanol Mendizabalek, pisuan; Ainhoa Ruedak, 60 metro hesietan; eta Nerea Muruak, 800 metroetan. Muruak, gainera, bere mailako Espainiako Txapelketan parte hartzeko gutxieneko marka egin zuen.

Iñigo Amonarrizek, zilarrezko domina jantzi zuen luzera jauzian, eta Anton Elosegik ere bigarren postua lortu zuen pisu jaurtiketan. Maddi Lillo korrikalaria ere bigarren lekuan geratu zen 60 metroko eta 200 metroko probetan. Azkenik, Rebeca Herrero hirugarren izan zen 60 metro hesietako lasterketan.

Bukatzeko, kadete mailan, Lara Torregaray garaile izan zen

60 metroetan, eta Espainiako Txapelketara joateko gutxiengo marka ondu zuen. Irati Mitxelena bi domina jantzi zituen, zilarrezkoa salto hirukoitzean, eta brontzezkoa 60 metro hesietan. Ane Galarza eta Naia Otegi, lehenengo eta bigarren izan ziren, hurrenez hurren, luzera jauzian.

Bilbon, jaurtiketa luzean Euskadiko Txapelketan, urrezko domina eskuratu zuten Helene Colomok, Aitor Arraizak eta Imanol Mendizabalek, guztiek pisu jaurtiketan. Aloña Lertxundi, bigarren izan zen.

Gasteizen, amaitzeko, distantzia luze lasterketan Euskadiko eta Gipuzkoako Txapelketak ospatu ziren. Bertan, Mattin tolosarra Euskadiko 10. eta Gipuzkoako bigarren izan zen kadete mailako 3000 metroko lasterketan.

• tolosa@hitza.info

Egin HITZAren HARPIDEDUN
otsailaren 1etik
martxoaren 31ra arte,
ETA JASO

EKAIN sagardoa
6 botilako
kaxa bana

Harpidedun egiten diren guztien artean
Orduñako Aisia hotelean,
bi pertsonarentzako
asteburu
baterako
egonaldia
ZOKATUKO DUGU

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza

Enrike Rubiños ◉**Vendetta taldeko bateria jolea**

Ibarrako gaztetxearen 20. urteurreneko ospakizunen barruan, Vendetta taldeak kontzertua eskainiko du larunbatean, 22:01ean hasiko den gaualdian.

«Herritarren aurrean jotzeak ilusio handia egiten dit»

Asier Imaz Ibarra

Vendetta taldeak hirugarren diskoa, *Atzo, Gaur eta Bihar*, abenduan aurkeztu zuen. Duela hiru aste hasi ziren aurkezpen kontzertuekin. Hasiera batean, Euskal Herriko lehen kontzertua Ibarrran ematea zen asmoa, baina Kalerako Rock sartu zen tartean. Euskal preso eta iheslarien aldeko ekimenaren garrantziaz jakitun, Durangon izan ziren Vendetta taldeko lehen kontzertua eskaintzen. Ibarrran jotzeko irrikaz daude, ordea, eta horren adibide garbia Enrike Rubiños (Tolosa, 1977) da. Berak proposatu zuen denboraldia bizi den herrian hastea, gaztetxeari bultzada bat emateko ekarpena eginaz. Herritarren aurrean ariko da, beraz, larunbatean.

Gaztetxearen 20. urteurrena ospatzen ari dira Ibarrran. Zure kasuan, herritarren aurrean ariko zara. Kontzertu berezia izango da, ezta?

Egia esan ilusio handia egiten zidan herrian jotzeak; taldekideei nik proposatu nien itzulia Ibarrran hastea. Azken urteetan beti Bonberenean hasten genuen, beraiekin oso erlazio ona baitugu, eta tolosarra izanik... Aurten ordea, Jon Altuna gaztetxeko kidearekin hitz egiten ari nintzela, gaztetxeari mugimendu pixka bat emateko asmoa zutela esan zidan. Nahi baldin bazuten, diskoa aurkeztera Ibarrra joango gine-la esan nien, eta ideia asko gustatu zitzaizkion beraiei; baita guri ere. **Noiz hasi zenuten 'Atzo, Gaur eta Bihar' diskoaren itzulia?**

Duela hiru aste Bartzelonan. Euskal Herriari Ibarrratik hastea pentsatu genuen, baina Durangoko Kalera Rock sartu zen tartean.

Zer moduzko harrera izan du diskoak eta zuzenekoak?

Egia esan oso ona. Ostiralean, adibidez, Valentzian izan ginen, eta harrituta gelditu ginen: jendeak hirugarren disko honetako

letrak aurreko diskoetakoak baino gehiago ezagutzen zituen. Bigarren dezent mugitu eta entzun zen, eta bat-batean, Valentziaraino joan eta hirugarrena horren indartsu ikustea, harrigarria izan zen.

Durangoko kontzertuan ere gustura egon zineten.

Oilo ipurdia jartzeko moduko kontzertua izan zen: jende guztia dantzatzeko giroa... Oso potentzia izan zen kontzertu hori. Orain artekoa kontuan hartuta, beraz, diskoa eta zuzeneko oso harrera ona izaten ari direla esan genezake.

Ibarrran egun guztiko jaia antolatuta dute, bazkari eta guzti. Giro berezia aurreikusten du.

Gaztetxea betetzea espero dugu, eta gehienbat, giroa. Egun guztian zehar festa giroan ibiliko dira, eta gauekoa, pastelaren ginda izatea espero dugu. Jendea animaturik egongo dela uste dut, ez daukat horretan zalantzarik (barreak). Ea guztion artean giro ederra sortzen dugun.

«Hirugarren diskoaren aurkezpen kontzertua Ibarrran egitea pentsatu genuen»

«Gaztetxea mugitu nahi zutela esan ziguten, eta gure burua eskaini genuen»

«Jendea gertu eta animaturik ikustean, jotzen ari dena ere berotu egiten da»

Gaztetxeko oholtzara zer moduz moldatuko zarete?

Kontzertu hauek askoz gertukoak goak eta beroak izaten dira. Zerbait nabarmendu behar bako, hori izango zen hain justu, egoten den giro beroa. Bestalde,



Vendetta taldea, Enrike Rubiños kaxa jotzen eserita dagoela. SAIJOA CABAÑAS

taldekideek eszenatokira egokitu beharko dute; ni eserita eta geldirik egoten naiz, baina beste lauak ez dira gelditzen, eta azkenean euren artean talkak, estropezuak eta komeriak izango dituzte. Hala eta guztiz ere, gustura ibiltzen gara horrelako lekuetan.

Publikoa hain gertu ikusteak sentsazio berezia sortu behar du.

Bai, horrela da. Jendea hain gertu eta animaturik ikustea izugarria da, jotzen ari dena ere giroan sartzen da: berotu egiten du.

Disko berrira itzuliz, ska musika eta euskara nagusi direla esan daiteke.

Euskararekin ahalegin berezia egin dugu, eta aurrekoetan baino gehiago sartu dugu. Alde batetik, Euskal Herriari mugitzen garela, eta bestetik, kanpora begira, garrantzia hartzen ari den taldea izaki, euskara leku horietan ere entzutea nahi dugulako. Disko honetan euskarari garrantzi gehiago ematen saiatu gara esan daiteke, bai.

Musikari dagokionez, betiko Vendetta entzuten al da?

Beti nahastu izan dugu ska beste musika estilo batzuekin, eta disko honetan, ska klasikoa egon badagoen arren, agian pop-rock aldea egin dugu.

'Begieta begira' kantuen bide-tik?

Bide horretatik, bai. Antzeko pare bat kanta badirela uste dut disko honetan. Azken finean, kantak idazten hasten zarenean, sentitzen duzuna egiten duzu, eta sentitzen duzuna esan. Batzuetan, modu batera ateratzen zaizu, eta besteetan bestera. Kutsu horrekin atera dira kantu horiek, eta ez digu inongo preokupaziorik sortzen.

Tronpetek irauten duten bitartean...

Bai, horrela da (barreak). Baina dena esan behar baldin bada, hain justu, kanta horietan ez dago tronpetarik (barreak). Baina, bai, diskoan hor daude.

Musika dantzagarria da. Goitik behera. Kanta guztiak edo ia guztiak oso dantzagarriak dira. Bat dago besteak baino lasaiegia dena.

Gustura al zaudete egindako lanarekin, eta diskoarekin?

Bai, oso gustura. Gauza berri bat ateratzen duzunean, beti izaten duzu zalantza hori: nolakoa izango ote da jendearen erantzuna? Baina hasieratik gauzak sinetsita egin ditugu, eta horrek ere lasaitasun bat ematen dizu. Gero jendearen erantzuna etorri da, eta oso gustura gaude.

Ibarra eta gero, non joko dituzue hurrengo kontzertuak?

Martxoaren 8an Bilbon joko dugu; 15ean, Tarragonan; 16an, Madriden; 22an, Guadalajaran; 23an, Granadan... Ez dugu oraindik hitz egin, baina abendura arte horrela ibiliko gara uste dut.

Hiru seme-alaba, emaztea...

Egunen baten Nagoreri (emaztea) monumentu bat egin beharko diot plaza erdian, baita nire guraso eta bere gurasoei ere. Horrelako bizitza aurrera eramatea ezinezkoa da familiaren babesik gabe.

Euskal Herriko taldeek kanpoan nolako harrera izaten dute?

Bide hori jorratzen pixkana-pixkana hasten zara. Lehen aldian, inork gutxi ezagutzen zaitu, eta zapora ona utzi behar duzu horretan jarraitu nahi baldin baduzu. Hala eta guztiz ere, gure kontzertuetara joaten direnek Euskal He-

↓ Egitaraua

MARTXOAK 1, OSTIRALA

- **19:32.** Pablo Haselen hitzaldia Subegi Elkartearen: *Arte Revolucionario*.
- **Ondoren.** Afari merienda Subegi Elkartearen.

MARTXOAK 2, LARUNBATA

- **12:03.** Zirkoloretsua gaztetxei zuzendutako ikuskizuna, Ibarrrako plazan.
- **14:29.** Herri bazkaria Subegi elkartearen, bertsolariekin.
- **Bazkalostean.** Bertso poteoa herrian zehar, Eneritz Zabaleta eta Xurmai Murua bertsolariekin.
- **22:01.** Kontzertuak gaztetxean, Pablo Hasel eta Vendetta taldearekin.
- Sarrerak eta zerrenda:** Bazkarirako zerrenda Zubiaurre, Atari eta Alai tabernetan. Kontzerturako sarrerak: Denak, Alai, Zubiaurre eta Atari tabernetan.

rriarekiko sentsibiltate pixka bat edo asko edukitzen dute. Sentsibiltate horrekin, gero eta jende gehiago dagoela ikusten dugu gainera. Normalean, beraz, harriena ona izaten dugu.

Zuen herriaren enbaxadore lana egitea ere tokatuko zaizue, beraz. Zer moduz moldatzen zarete horretan?

Gehienbat egoera normalizatzen saiatzen gara, hau da, komunikabide batzuk jartzen gaituzten bezalakoak ez gara azaltzen dugu; saiakera behintzat egiten dugu horretan.

Murritzketek hezkuntzaren kalitatean eragina izango dutela salatu dute

Erleta eskolaren kanpoaldean elkarretaratzea egingo dute bihar, 16:30etik aurrera, beltzez jantzita

Iñigo Terradillos Leitza

Nafarroako Gobernuak hezkuntzan eginiko murritzketen aurka kalera irtengo dira berririo bihar, Erleta eskolako irakasleak eta gurasoak, *Ostegun beltzak* lelopean. Iragan astean egin moduan, arropa beltzez jantzita elkarretaratzea egingo dute, 16:30ean, ikastetxearen kanpoaldean.

Amaitu Azpiroz Erleta eskolako zuzendariak azaldutakoaren arabera, aldarrikapen hauen helburua, «bai familiei bai eta herritar guztiei murritzketen ondorioz eskolaren egoera aldatu egin dela jakinaraztea da». Izan ere, kasuan kasuko egoera bestelakoa den arren, Erleta eskolan argi dute hezkuntzan egin dituzten murritzketen ondorioak kalitatean eragin zuzena dutela: «Denbora nabaritutako dugu kalitatea gutxitu dela», adierazi du Azpiroz.



Iragan ostegunean murritzketen aurka egin zuten elkarretaratzearen une bat. HITZA

Leitzako eskolaren kasuan, iragan ikasturtean zuten irakasle kopuru berbera mantentzen duten arren, horietako batzuen lanordua murritzitu dituzte, «horrek dakarren erritmoaren moteltzearekin» eta funtzionamendurako diru sarrera ere gutxitu dute. Gehiago ala gutxiago murritzketek eskola guztietan dutela eragina dio Erletako zuzendariak: «Guk badakigu modua izango bagenu gehiago egiterik izango genukeela, baina alde guztietan murritzketak badaude, materialean, diru sarreretan, lanor-

duetan... dugunarekin moldatu beharra dugu».

Leitzako eskola publikoan komisio bat sortu zuten irakasleek murritzketen gaia jorratzeko, eta bertan erabaki zuten ostegunero aldarrikapenei ekitea. Gurasoei euren erabakiaren berri eman zieten, eta hauek ere protestara batzea erabaki zuten. Pasa den astean egin zuten lehen elkarretaratzea, eta «aurreikusi baino jende gehiago bildu zen». Gaurkorako ere deialdia luzatu dute Erleta eskolatik, herritar oro beltzez jantzita etor dadin. 10 minutu inguru-

ruko aldarrikapena egingo dute, eta horrela izango da ostegunero, martxoaren amaierara arte.

Bestalde, Erletan ezezik, Leitzako Amazabal institutuan ere hezkuntzako murritzketek utzitako eraginak «nabariak» direla dio bertako zuzendari Peio Zestauk: «Hiru irakasle gutxiagorekin bezala ari gara lanean, ordutegiak aldatu dira, beka deialdiak bertan behera, ingeleseko solasketa irakaslerik ez dugu... asko dira ondorioak, eta moldatzea besterik ez zaigu geratzen».

◉ leitzaldea@hitza.info

→ Laburrak

Sahararren aldeko elkarretaratzea, gaur

TOLOSA ▶ Saharar Errepublikara Abiar Demokratikoaren 37. urteurrenaren harira, elkarretaratzea egingo dute gaur, 19:00etan, Tolosako Plaza Zaharrean, udaletxe aurrean.

Hobariak etxea Eusko Jaurilaritzaren esku dutenei

IBARRA ▶ Higiezin Zergaren kuota osoaren %25eko hobaria izango da etxea errentan jartzeko Eusko Jaurilaritzaren esku utzi dutenentzat. Interesdunek martxoaren 1a baino lehen egin beharko dute eskaera, eta behar bezala ziurtatu, NANren kopia, Eusko Jaurilaritzarekin sinatutako hitzarmenaren kopia eta 2012ko Ondasun Higiezin Gaineko zergaren ordainagiriaren kopiaekin.

Emakumearen Eguneko afarian izen ematea

BERASTEGI ▶ Emakumearen Nazioarteko Egunean, martxoaren 8an afaria egingo dute Basurde elkarteak. Martxoaren 3a izango da izena emateko azken eguna, eta 943 68 33 38 edo 943 68 31 51 zenbakietara hots egin beharko da.

Martxoaren 9an izango da Langostinoren irteera

IBARRA ▶ Langostino elkarteak iragan igandeko zuen aurreikusia moto irteera, baina eguraldiagatik atzeratu egin zuen. Irteera martxoaren 9an egingo dute, eta sagardotegian afalduko dute. Martxoaren 4a baino lehen eman beharko da izena.

Ohiko batzarra izango da bihar, Ibarako udaletxean

IBARRA ▶ Ohiko batzarra egingo dute bihar, Ibarako udaletxean. 19:00etan izango da, eta besteak beste 2013ko aurrekontuen inguruan eztabaidatuko dute.

Irudia ▶ Berastegi

UDALETXE BERRITUAK, ATEAK ZABALIK

Urtebete baino gehiago iraun duten obren ostean, Berastegiko udaletxea zaharberriturik dago. Hain zuzen ere gaurtik aurrera hasiko dira udaletxeko langileak bertan lanean. Iragan igandean udaleko ordezkariak ateak ireki zituzten herritarrek udaletxe berrikoa ikus zezaten, eta askok nahi izan zuten bertaratu. Aurrerago egingo dute inaugurazio ofiziala.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



8°
1°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	9°
HOTZENA	5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

GAUR

DEIALDIK

■ **Anoeta.** Martxoaren 2an, larunbata, korrika kulturala ospatuko dute Anoetan. Egun osoko festa izango da, eta bazkarira joateko izena eman behar da Ikastolako idazkaritzan edo Itzuli tabernan hilaren 29a baino lehen. Haurrek, 6 euro, ikasle eta langabetuek, 10 euro eta langileek, 12 euro ordaindu beharko dute.

■ **Tolosa.** Ostiralean, martxoak 1, Hirukidek urteroko bertso-afaria ospatuko du, Peñagarikano, Gorostidi eta Muñoa bertso-lariekin. San Esteban elkartean 21:00etatik aurrera izango da. Sarrerak Hirukideko idazkari-tzetan eta elkartean bertan salgai daude 25 eurotan. Nahi duen orok joateko aukera du.

■ **Tolosa.** Larremendi auzoko bizilagunen bilera egingo dute, gaur, 19:30ean. Arkauteko etxean auzo lokalak egiteko aukerari buruz ariko dira, Arkauteko erai-kinean bertan.

■ **Tolosa.** Apirilaren 14aren aurreko astean, Tolosako Foru Errepublikanoak Kultur Aste Errepublikanoa antolatuko du.

Errepublikara garaiko argazki eta gauzen erakusketa egin nahi dute, eta herritarren laguntzaz materiala bildu nahi dute. Horretarako, kultur etxera joan beharko da martxoaren 1era bitartean, 19:30etik 21:00ra.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Gaur, Ekozinemaldiaren barruan, *Del viento al azul* eta *Los Naua, 20 años después* ikusteko aukera izango da, Leidor aretoan. 20:00etan hasiko da, eta Ekologistak martxan taldearen eskutik izango da. Sarre-
ra doan da.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-
nen eta iritzien erantzukizunik.

Inauterietako Argazki Lehiaketa



ASTELENITAKO KONFETIEN BAINUA

Arantza Amonarrirek Astelenitan zezen plazan ateratako argazkiarekin parte hartu nahi izan du Inauterietako Argazki Lehiaketan. «Ez dakit nor den, baina konfeti bainu ederra hartu zuen», azal-

du du Amonarrirek. Eta «ondo aukeratu behar da zezenetan non eseri!», gaineratu du. Martxoaren 3a baino lehen bidali behar dira argazkiak thargazkiak@hitza.info helbidera. A. AMONARRIZ

Agurak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurak

• **Saria:**
Elketa jatetxean
bi lagunentzako
otordua

Elketa Jatetxea

San Miguel bailara, 2
Hernialde 943 65 21 16
www.elketa.com

• Argazkiak nora eta noiz bidali:
thargazkiak@hitza.info helbidera **martxoaren 3a** bitarte
Argazkiak gutxienez 20 zentimetrokoak eta 300 ppp-ko bereizmena izan behar dute.



**Inauterietako
Argazki lehiaketa**

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza info

Inauterietako

Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira
Inauterietan tolosaldea.hitza.info webgunean!